

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5394

*EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 17koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez berrikusten eta aldatzen baita Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri (Biocompost de Álava ABEE) emandako ingurumen-baimen integratua, Vitoria-Gasteizko (Araba) udal-mugaratean hiri-hondakin solidoak tratatzeko.*

### EGITATEAK

1.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK sustatutako hiri-hondakin solidoak tratatzeko instalazioari, Vitoria-Gasteizko Jundiz industrialdean. Hain zuzen ere, aipatutako bi sozietateek Biocompost de Álava ABEE aldi baterako enpresa-elkartea osatzen dute.

2.– 2016ko azaroaren 17ko jakinarazpenaren bidez, egokitzen jotzen da zarata-kontrolak hiru urtean behin egitea.

3.– 2016ko azaroaren 28ko jakinarazpenaren bidez, beste hondakin arriskutsu bat gehitu zen: HEZ 190702 (substantzia arriskutsuak dituzten lixibiatuak).

4.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri emandako ingurumen-baimen integratua, ez-funtsezkotzat jotzen den aldaketa baten ondorioz: lixibiatu-urak Krispiñako HUAko hondakin-ur gisa kudeatzea, eta edozein arrazoiengatik bere gain hartu ezin dituen partidak hondakin gisa kudeatzea HEZ 190599 delakoaren arabera.

5.– Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri emandako ingurumen-baimen integratua, ez-funtsezkotzat jotzen den aldaketa baten ondorioz: scrubber azido bat instalatzea 2. bioiragazkiko emisio atmosferikoaren fokuan, amonioaren parametroetarako isuriak desagerrarazteko/murrizteko.

6.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko ekainaren 9ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri emandako ingurumen-baimen integratua, ez-funtsezkotzat jotzen den aldaketa baten ondorioz: sortutako hondakinen HEZ kodeak eguneratzea, zarata neurtzeko maiztasuna aldatzea, eta 1. eta 2. fokuetako isurketa-mugen balioak aldatzea.

7.– 2021eko irailaren 10ean, ingurumen-organoak, baimena berrikuste aldera, honako hauek igortzeko eskatu zien Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri: instalazioaren funtzionamenduaren eta ondorioetan deskribatutako teknika erabilgarri onenen arteko alderaketa bat eta instalazioari buruzko bestelako dokumentuak.

8.– 2021eko irailaren 24an, ingurumen-baimen integratua berrikusteko eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuten Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK.

9.– Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela ikusi eta gero, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2021eko azaroaren 29an emandako Ebazpenaren bidez erabaki zen jendaurrean jartzea, 30 egun baliodunez, ingurumen-baimen integratua emateko Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK egindako berrikuste-eskaera, egoki ikusten ziren alegazioak aurkezteko; horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2021eko abenduaren 16an.

10.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez, aldatu egin zen Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri emandako ingurumen-baimen integratua, ez-funtsezkotzat jotzen den aldaketa baten ondorioz: HEZ 02 03 05 (diatomeo-lurrak) duten hondakinak gehitzea, kudeatu beharreko hondakin berri gisa.

11.– Ingurumen-baimen integratua jendaurrean jartzeko izapideak amaituta, egiaztatu da ez dela alegaziorik aurkeztu.

12.– Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2022ko otsailaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Amvisari eta Vitoria-Gasteizko Udalari, eta, 2022ko otsailaren 14an, Arabako Osasun Publikoari.

13.– 2022ko martxoaren 1ean, Arabako Osasun Publikoaren Departamentuak txostena egin zuen, eta espedientean jaso da txosten horren emaitza.

14.– 2022ko abuztuaren 3an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, Fomento de Construcciones y Contratas SAren eta Cespa Conten SAren esku utzi zen espediente osoa, bertan jasotako emaitzarekin.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– 2007ko urriaren 24an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.

2.– 2008ko abenduaren 23an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako erregelamendua onartzen duena.

3.– 2011ko uztailaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

4.– 2012ko urtarrilaren 23an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituena.

5.– 2013ko urriaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena.

6.– 2013ko abenduaren 11n argitaratu zen 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-eba-luazioari buruzkoa.

7.– 2014ko abenduaren 18an onartu ziren Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua (2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztetako) eta Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaraua (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), bat etorritz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin.

8.– 2015eko otsailaren 21ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (TEEH). Bertan, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeatzaileentzako betekizun eta baldintza tekniko batzuk ezarri ziren.

9.– 2015eko ekainaren 25ean onartu zen 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

10.– 2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

11.– 2019ko urriaren 15ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua, zeinetan ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahi-taezko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueri –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehen-tasun-mailakotzat sailkatuak–.

12.– Ingurumen-baimen integratua eman ondoren, ingurumenari buruzko araudi berria promulgatu da; beraz, egokia da indarrean dagoen araudi berrira egokitzea, ofizioz, Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren baldintzak, ebazpen horren laugarren apartatuan ezarritakoari eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

13.– 2020ko urtarrilaren 22an eta otsailaren 4an, hurrenez hurren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Agindua, zeinaren bidez jarraibide tekniko bat onartzen baita, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzkoa, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

14.– 2020ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 4/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, zeinaren bidez indargabetu egiten baita irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

15.– 2020ko ekainaren 19an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena.

16.– 2021eko azaroan onartu zen Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030 Plana.

17.– 2022ko apirilaren 1ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 208/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Hondakinen Arloko Finantza Bermeei buruzkoa.

18.– Sortutako frakzioen tratamendu-prozesuaren eta helmugaren efizientziari dagokionez, adierazi behar da IPPC Legeak 1. artikuluan ezartzen duela haren helburua atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea dela, edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori murriztu eta kontrolatzea, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

19.– Aipatutako IPPC Legearen 3. artikulua honela definitzen ditu «teknika erabilgarri onenak»: jardueren eta isurien eta emisioen muga-balioak zein baimenaren beste baldintza batzuk (isurketak eta emisioak saihestea edo, hori ezin bada, murriztea, eta isurketek edo emisioek ingurumenean eta pertsonen osasunean duten eragina murriztea helburua dutenak) betetzeko teknika jakin batzuen gaitasun praktikoa frogatu dezaketen ustiapen moten garapen-fase eraginkorra eta aurreratua.

20.– Batzordearen 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakiak, 2018ko abuztuaren 10ekoak, baldintza aplikagarriak ezartzen ditu, baldintza absolutu gisa, instalazio guztietan; Betearazpen Erabaki horren bidez, hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dira, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera.

21.– Horrekin bat etorritik, bilakaera teknologikoa eta gaur egungo egoera ikusita, Organo honek uste du teknikoki posible dela instalazioan hobekuntzak ezartzea, balorizatu daitezkeen frakzioak efizientzia handiagoarekin bereizteko eta sortutako frakzioak lehentasunezko kudeaketa-lanetara bideratzeko; hau da, «jardueraren eta haren ustiapen moten garapen-fase eraginkorra eta aurreratuago» batera igaroko litzateke.

22.– Emisioen Erregelamenduaren 26. artikulua, ingurumen-baimen integratua berrikusteari dagokionez, honako hau ezartzen du 4. apartatuan:

«Betiere, ingurumen-baimen integratua ofizioz berrikusiko da honako kasu hauetan:

(...)

b) Emisioak nabarmen murriz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan eginiko aldaketa handien ondoriozko gehiegizko kosturik izan gabe.

(...))»

23.– Aipatutako testu bateginaren 22.5 artikulua aurreikusten duenez, organo eskudunak TEOei buruzko ondorioetan deskribatu ez den teknika erabilgarri onenen batean oinarritutako baimen-baldintzak jartzen dituztenean, honako hau bermatu beharko du:

a) Teknika hori 3. eranskinean azaltzen diren irizpideak bereziki aintzat hartuta zehaztu dela.

b) 7. artikuluko betekizunak betetzen direla.

24.– Era berean, 3. eranskinak –oro har kontuan hartu behar diren alderdiak edo kasu berezi batean kontuan hartu behar direnak, 3.12 artikuluan definitzen diren teknika erabilgarri onenak zehazten direnean, ekintza batek ekar ditzakeen kostuak eta onurak eta zuhertasunaren eta prebentzioaren printzipioak aintzat harturik– hauek aipatzen ditu, besteak beste:

«1.– Hondakin gutxi sortzen dituzten teknikak erabiltzea.

3.– Prozesuan sortutako eta erabilitako substantziak –eta, hala behar denean, hondakinak– berreskuratze eta birziklatze teknika garatzea.

4.– Eskala industrialean emaitza positiboak eman dituzten prozesu, instalazio edo funtzio-namendu-metodo konparagarriak.

5.– Aurrerapen teknikoak eta ezagutza zientifikoaren bilakaera.

8.– Teknika erabilgarri onen bat ezartzeko behar den epea.

10.– Emisioen inpaktu globala eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko premia.»

25.– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak eska dezakeen horrekin guztiarekin, instalazioan ezarri beharreko teknika erabilgarri onenak balioztatzea, balorizatu daitezkeen frakzioak efizientzia handiagoarekin bereizteko eta sortutako frakzioak lehentasunezko kudeaketa-lanetara bideratzeko; horrez gain, instalazioaren baimena berrikusi beharko da, horretarako eskakizuna txertatzeko.

Aipatutako legeria, eta gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Berrikustea Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua (Vitoria-Gasteizko udal-mugartean –Araba– hiri-hondakin solidoak tratatzeko), Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko Betearazpen Erabakian azaltzen den baldintzetan.

Bigarrena.– Aldatzea Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri 2015eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez emandako ingurumen-baimen integratua, hiri-hondakin solidoak tratatzeko. Zentzu horretan, ebazpen horren lehenengo, bigarren eta laugarren apartatuak aldatzea. Honela geratuko dira idatzita:

«Lehenengoa.– Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri, Biocompost de Álava ABEE aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten sozietate gisa (helbidea: Askarra kalea 20, Vitoria-Gasteiz; IFK: U 01361203), ingurumen-baimen integratua ematea, hondakin arriskugabeak tratatzeko eta desagerrarazteko instalazioa jartzeko Vitoria-Gasteizko (Araba) udal-mugartean, ebazpen honen bigarren apartatuan ezarritako baldintzetan.

Jarduera Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. eranskineko kategoria honetan dago sartuta:

"5.4. Hondakin arriskugabeak balorizatzeko edo balorizatu eta desagerrarazteko instalazioak eguneko 75 tonatik gorako gaitasunarekin, baldin eta jarraian zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago biltzen badituzte, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Lege Dekretuan bildutakoak izan ezik:

- a) Tratamendu biologikoa.
- b) Errausketaren edo baterako errausketaren aurreko tratamendua.
- c) Zepa eta errautsen tratamendua.
- d) Hondakin metalikoen birringailuetan tratatzea, hondakin elektrikoak eta elektronikoak barnean hartuta, baita balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta horien osagarriak ere.

Instalazioan egiten den hondakinak tratatzeko jarduera bakarra digestio anaerobikoa denean, jarduera horren gaitasun-atalasea eguneko 100 tonakoa izango da."

Instalazioa Jundizko industrialdean dago kokatuta, eta, gutxi gorabehera, 13.885 m<sup>2</sup>-ko azalera estalia du.

Instalazioaren jarduera masan bildutako hiri-hondakinen digestioaren bitartez gauzatzen da, tratamendu mekanikoan baliozta daitezkeen zatiak bereiziz tratamendu biologikoa egin aurretik.

Instalazioaren gaitasun izendatua 120.750 hiri-hondakin tonakoa da, urteko.

Kudeatutako hondakin nagusiak bi dira: bereizita biltzen ez diren udal-hondakinen frakzioa (gainerako frakzioa) eta gaika biltzen diren udal-hondakinen frakzio organikoa (UHFO).

Bi hondakin horien hasierako tratamenduan, tamaina handikoak erretiratzeko dira eta neurriaren arabera bereizten dira. Material finena biometanizazio-prozesura bideratzen da, non, gutxi gora-behera, 47 eguneko digestio-prozesua egiten baita.

Material lodiarekin beste bereizketa bat egiten da, eta haren frakzio finena konpostaje-prozesura pasatzen da. Bereizita biltzen ez diren udal-hondakinen frakzioaren kasuan (gainerako frakzioa), 6 edo 7 aste bitarteko heltze-prozesua egiten da, eta, ondoren, materiala fintzen da, eta material bioegonkortua eta errefusa sortzen da hortik. Gaika bildutako udal-hondakinen frakzio organikoaren (UHFO) kasuan, materiala fintze-prozesu batean sartzen da, eta, hala badagokio, multzotan egindako aurretiazko heltze-prozesuari ekiten zaio. Ondoren, merkaturatu egingo den konpost bat sortzen da, eta errefusa kudeatzaile baimenduari eramango zaio.

Hainbat bereizketa-faseren ondoren (bereizgailu balistikoa, objektu gurpildunak, bereizgailu magnetikoa, bereizgailu optikoa eta abar), konpostaje-prozesura bideratzen ez den materiala bereizi egingo da: alde batetik, material berreskuragarriak; eta, bestetik, zabortegira bideratuko diren errefus-materialak.

Era berean, olio jangarrien garbiketa-lohiak jasotzen dira, eta biometanizazio-prozesuan sartzen dira.

Beraz, hiru prozesu nagusi bereiz daitezke:

1.– Bereizita bildutako materia organikoaren triajea eta konpostajea (R0301 kudeaketa-lana): Pet eta Pead plastikoak, beira, metal ferrikoak eta ez-ferrikoak, papera eta kartoia, eta edarietarako ontziak (TetraBrik-ak) berreskuratzen dira. Berreskuratze hori eskuz zein automatikoki egiten da. Ondoren, bereizita jasotako frakzio organikoa tratatzen da, eta konposta lortzen da.

2.– Gainerako frakzioko frakzio organikoen triajea eta konpostajea (R1203/D802 kudeaketa-lana): Pet eta Pead plastikoak, beira, metal ferrikoak eta ez-ferrikoak, papera eta kartoia, eta edarietarako ontziak (TetraBrik-ak) berreskuratzen dira. Berreskuratze hori eskuz zein automatikoki egiten da. Ondoren, "gainerako frakzioan" dagoen materia organikoa degradazio aerobioko prozesura eramaten da. Era berean, udal-hondakinen tratamendu anaerobikoko digestio-lohiak sartzen dira.

3.– Biometanizazioa (R102 kudeaketa-lana): Materia organikoaren kalibre txikiena duen zatiari (gaikako bilketakoa eta masako bilketatik berreskuratutakoa) hartidura anaerobioa egiten zaio elikagaien industriako lohiekin batera, biogasa ekoizteko. Era berean, biogas hori elektrizitatea sortzeko motor batean erabiltzen da.

Azkenik, tratatutako hondakinen zati berreskurazina egokitu egiten da, prentsaketa edo egonkortze bidez, zabortegira eramateko.

Prozesuetan sortutako hondakin-urak Jundizko industrialdeko saneamendu-sarean tratatzen dira.

– Ur beltzak industrialdeko saneamendu-sarera daude lotuta.

– Ur grisak 400 m<sup>3</sup>-ko putzu batera bideratzen dira. Han biltegitratzen dira, eta, ondoren, kolektorerara isurtzen dira, bi modutan: ponpaketa bidez, urak ur beltzak biltzeko sarera bidaliz; edo gainezkatze bidez, industrialdeko euri-urak biltzeko sarera bidaliz.

– Euri-urak horretarako egindako putzu batean biltzen dira, eta, instalazioaren beharren arabera, industrialdeko euri-uren kolektorerara isurtzen dira edo ekoizpen-prozesuan erabiltzen dira.

Hondakinak kudeatzeko etapetan, materia organikoaren lixibiatuak sortzen dira (kopururik handiena, materia hori jasotzeko eta heltze-prozesuari ekiteko nabeetan eta lubakietan). Lixibiatu horiek lurpeko putzu batera bidaltzen dira, eta, zisterna-kamioi baten bidez, Krispiñako HUAra eramaten dira hondakin-ur gisa, eta HUAk gaitasunik ez balu horiek tratatzeko, kudeatzaile baimenduari bidaliko litzaizkioke HEZ 19 05 99 delakoaren arabera.

Sortutako hondakin arriskutsuak zein arriskugabeak ekipoak mantentzeko eta instalazioa zainatzeko jarduera orokorretatik datoz, nagusiki.

Fomento de Construcciones y Contratas SAren eta Cespa Conten SAren jardueran, teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira, zehazki, dokumentu honetan biltzen direnak: "Hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera. 2018ko abuztua": TEO1, TEO2, TEO3, TEO4, TEO5, TEO6, TEO7, TEO8, TEO 10, TEO11, TEO12, TEO14, TEO15, TEO16, TEO17, TEO19, TEO20, TEO21, TEO23, TEO33, TEO34, TEO35, TEO36, TEO38.»

«Bigarrena.– Baldintza eta eskakizun hauek ezartzea, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK Vitoria-Gasteizko (Araba) udal-mugartean sustatutako jarduera ustiatzeko (hondakin arriskugabeak tratatu eta desagerraraztea):

A) Erantzukizun zibileko aseguru.

Gutxienez sei ehun mila euroko (600.000) erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, honako hauek estaliko dituen: hirugarren pertsonen edo horien ondasunetako sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

B) Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera igota.

C) Ingurumen-erantzukizuna.

Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean emandako datuetan aldaketarik badago, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK horren berri emango diote Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala beteko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta honako apartatu hauetan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak hartu, manipulatu eta biltegitratzeko baldintzak eta kontrolak.

Instalazioan balorizazioa egiteko onar daitezkeen hondakinak hurrengo apartatuetan daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

Instalazioan tratatu beharrekotzat jotzen diren hondakinen jatorri bakoitzeko, operadoreak dagokion tratamendu-kontratua igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, eta kontratu horretan, hala badagokio, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da.

Hondakin jakin bat onar daitekeela egiaztatu ondoren, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko diote dokumentu horren titularrari, onarpenaren baldintzak ezarrita.

#### D.1.1.– Hondakin onargarriak.

Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK Europako Hondakinen Zerrendako hondakin arriskugabeak tratatu ahal izango dituzte. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2008/98/EE Zuzentarauan xedatutakoa betetzeko):

a) Bereizita bildutako hondakinean dauden material birziklagarriak berreskuratzea, materia organikoaren triajearen eta konpostajearen bidez (R301 kudeaketa-lana):

HEZ kodea	Hondakinaren deskribapena
20 01 08	Sukaldeetako eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak
20 01 99	Beste kategoriatan zehaztu gabeko frakzioak (gaika bildutako frakzioak)
20 02 01	Hondakin biodegradagarriak (inausketa eta lorezaintza)
20 03 01	Udal-hondakinen nahasketak (gaika bildutako frakzioak)

b) Masan bildutako hondakinean dauden material birziklagarriak berreskuratzea, gainerako frakzioa tratatzearen ondoriozko frakzio organikoaren triajearen eta konpostajearen bidez (R1203/D802 kudeaketa-lana):

HEZ kodea	Hondakinaren deskribapena
20 03 01	Udal-hondakinen nahasketak

c) Biometanizazioa, materia organikoaren frakzio finarekin batera, bai gaikako bilketarena, bai masako bilketatik berreskuratutako bilketarena (R102 kudeaketa-lana).

HEZ kodea	Hondakinaren deskribapena
02 03 01	Arazketa, garbiketa, zuriketa, zentrifugatze eta bereizketako lohiak.
02 03 05	Diatomeo-lurrak (efluenteak in situ tratatzearen ondoriozko lohiak).

Instalazioan inola ere ez dira onartuko ebazpen honetan zehaztu ez diren hondakinak, ez eta, hondakin onargarrien artean adierazitakoak izanik ere, beste hondakin mota generikoren batekin kutsatuta daudenak ere.

Jasotako hondakinek ezingo dute izan 2008/98/EE Zuzentaruaren III. eranskina ordeztzen duen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 Erregelamenduan ezarritako arrisku-ezaugarrietako bat ere.



Hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorri ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

#### D.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, ebazpen honen baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Kontrol horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, onartzeko parametro mugatzaile eta baldintzatzaileak ezarriko dira. Egiaztatze hori sarrera-kontrolako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, hondakin mota gehiago kudeatu ahal izateko, beharrezkoa izango da aldez aurretik Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onespena lortzea eta ebazpen honen I apartatuan adierazitakoa betetzea.

#### D.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen geralekuek zolata iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko jarioak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Instalazioan, hondakinekin zamalanak egitean edo hondakinak manipulatzeko, kontu handia izan beharko da ez dadin egon emisio zehaztugaberik edo kontrolez kanpikorik, edo, bestela, emisiook ahalik eta txikienak izateko. Alde horretatik, garrantzitsua izango da ekipamenduen estankotasuna ziurtatzea.

#### D.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

a) Balorizatu beharreko hondakin arriskugabeak biltegitratzeko gehieneko epea bi urtekoa izango da.

b) Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru estankoak izan behar dituzte, aurreikusitako karga guztiak jasateko eta horien isuri edo ihesak atxikitzeko gaitasunarekin. Biltegitratze-gune bereizitak egongo dira, hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

c) Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

d) Hauts-itxurako hondakinak eta soltean jasotakoak nabearen barruan gorde beharko dira, multzotan eta/edo gelaxketan, tratamendua egiteko unea iritsi arte.

e) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan daudelako edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Bilketa-sistema horiek independenteak izango dira, baldin eta, hondakinen tipologia dela-eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

f) Hondakinak desagertzen edo galtzen badira, edo ihes egiten badute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizko Udalean.

g) Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK badute D.1.1 apartatuan adierazitako hondakinen transferentzia-zentro gisa jarduterik, hondakinak kudea daitezzen beste instalazio baimendu batera eramateko.

D.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuak erregistratzea.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK formatu fisiko edo telematikoko artxibo kronologiko bat eduki beharko dute, eta bertan bilduko dira, hurrenkera kronologikoan, hondakinen kopurua, mota, jatorria, helmuga eta hondakinak tratatzeko metodoa, eta, hala badagokio, garraiobidea eta bilketa-maiztasuna. Aipatutako artxibo kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Artxibo kronologiko hori hiru urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluari jarraikiz, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da fitxategi kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Era berean, bidalitako konpost-kantitatea erregistratuko da, bai eta zehaztapenetatik kanpoko produktuen kantitatea eta helmuga ere.

D.1.6.– Estatz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zabortegian desagerrarazi beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balioztatze- eta desagerrarazte-tratamendutik lortutako korrante esanguratsuren bat, kontsulta egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAeko Prebentzio eta Kudeaketako 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Instalazioan tratatutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

D.1 apartatuan adierazten diren hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta biltegitatzeko baldintza eta kontrolei kalterik egin gabe, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK tratamendu-lerro hauetarako baldintza hauek betetzen dituztela bermatu beharko dute:

a) Ongarriei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuaren 14. artikuluan (kalitatea kontrolatzeko barneko sistemak) xedatutakoa bete beharko da, batik bat bitarteko teknikoak eta giza baliabideak esleitzeari dagokionez, bai eta dagokion maiztasuna betez kontrol analitikoak egiteari dagokionez ere.

b) Produktua soilik bidali ahal izango da, emaitza fisiko-kimikoak eta mikrobiologikoak 506/2013 Errege Dekretuan ezarritako balioen arabera direnean.

c) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren baimenak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira, honako xedapen hauetan ezarritako eskakizunak betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 Erregelamendua (EE), gizakiek jatekoak ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatzeko osasun-arauak ezartzen dituena; eta Europako Batzordearen 2011ko otsailaren 25eko 142/2011 Erregelamendua (EB), aipatutako erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena.

d) Biogasa desagerrarazteko zuzian, 1.000-1.200 °C arteko tenperatura hartuko da, gutxienez 0,3 segundoan (iraupen-denbora), eta turbulentzia egokiari eutsiz.

e) Gaika bildutako materia organikoa ez da tratatuko instalazioan egiten diren gainerako tratamenduekin batera; modu horretan, materia organikoa ezin izango da nahasi kudeaketa horietatik eratorritako materialekin. Elementuak gainerakoien frakzioaren fluxuarekin partekatuz gero, protokolo bat ezarri beharko da, kutsadura gurutzatua saihesteko zenbait fasetan: materialak hartzeko, konpostatzeko, heltzeko, fintzeko eta bidaltzeko faseetan, hain zuzen ere.

#### D.2.2.– Kudeatutako hondakinen bizitza-amaierarako bete beharreko baldintzak.

Kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, dagozkien adostasun-deklarazioak egin direla egiaztatu beharko da, bat etorriz Europako Kontseiluaren 2011ko martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin. Erregelamendu horretan, txatar mota jakin batzuek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak finkatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.

Era berean, aipatutako arauaren I. eranskinean finkatutakoarekin bat ez datozen ezaugarriak dituzten kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, hondakin gisako kudeaketa egiaztatuko da, kudeatzaile baimendu baten dagozkion onarpen-dokumentua aurkeztuta.

Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK sortutako konpostak inskribatuta egon beharko du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren Ongarrien Erregistroan, eta ongarriei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuak ezarritakoa bete beharko du. Inskripzio horrekin lotutako edozein aldaketaren berri eman beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

#### D.2.3.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

##### D.2.3.1.– Baldintza orokorrak.

Fomento de Construcciones y Contratas SAren eta Cespa Conten SAren instalazioa ustiatzean, honako baldintza hauek bete beharko dira: atmosferara egingo diren emisioek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak betetzea, giza osasuna eta ingurumena zainduta, betiere.

Prozesuan zehar aireratzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, behar denean, emisio horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko eta haien ondoriozko efluenteez arriskurik izan ez dezaten giza osasunerako eta segurtasun publikorako. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantendu beharko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta guneen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

#### D.2.3.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Fomento de Construcciones y Contratas SAREN eta Cespa Conten SAREN instalazioak (haren jarduerak urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren eranskineko B-09 10 05 01 kodea du –Konposta ekoizteko instalazioa–) honako foku hauek ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiari jarraituz katalogaturik:

Fokua	Kodea	Izena	Altuera (m)	Diametroa (m)	AKDJ katalogazioa	Funtzionamendu-erregimena
1	0100027767-01	1. bioiragazkia–aurretratamendua	13	1,8	09 10 09 07	Foku sistematikoa
2	0100027767-02	2. bioiragazkia–heltzea eta fintzea	13	1,8	09 10 05 01	Foku sistematikoa
3	0100027767-03	Kogenerazio-modulua	10,3	0,32	09 04 01 05	Foku sistematikoa
4	0100027767-04	Zuzia	8	1,29	09 04 01 03	Foku sistematikoa
5	0100027767-05	Galdara	7,30	0,30	03 01 03 03	Foku sistematikoa
6	0100027767-06	Konpostajea	*	*	09 10 05 01	Emisio zehaztugabeak

\*Fokuen neurri buruzko informazioa eman beharko da.

Foku ez-sistematikoetakoren bat, batez beste, urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzerara pasatuko balitz, ordubetik baino gehiagoko iraupen indibiduala izanik, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku gisa araupetu beharko da.

Era berean, baldin eta urte jakin batean foku sistematiko baterako baldintza horietako bakar bat ere betetzen ez bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren gaineko kontro-

lik egitea; kontrola hurrengo urtean egin beharko da, betiere, kontroletik salbuesteko baldintzek beren horretan jarraitu ezean. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

#### D.2.3.3.– Isurketaren muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren isurketetan ez dira muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Fokuaren izena	Substantziak	Emisioen muga-balioak
1	1. bioiragazkia– aurretratamendua	Partikulak, guztira	5 mg/Nm <sup>3</sup>
		H <sub>2</sub> S	5 mg/Nm <sup>3</sup>
		NH <sub>3</sub> *	10 mg/Nm <sup>3</sup>
		Usainak *	1000 u/o
		GKOH	40 mg/Nm <sup>3</sup>
2	2. bioiragazkia– heltzea eta fintzea	Partikulak, guztira	5 mg/Nm <sup>3</sup>
		H <sub>2</sub> S	5 mg/Nm <sup>3</sup>
		NH <sub>3</sub> *	10 mg/Nm <sup>3</sup>
		Usainak *	1.000 ouE/Nm <sup>3</sup>
		GKOH	40 mg/Nm <sup>3</sup>
3	Kogenerazio-modulua	NO <sub>x</sub>	500 mg/Nm <sup>3</sup>
		SO <sub>2</sub>	350 mg/Nm <sup>3</sup>
		CO	1.400 mg/Nm <sup>3</sup>
		Formaldehidoa	60 mg/Nm <sup>3</sup>
5	Galdara	CO	500 ppm
		NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> )	300 mg/Nm <sup>3</sup>

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

\*Behar bezala betetzen dela justifikatuko da, usainen kontzentrazioaren bidez edo amoniakoaren kontzentrazioaren bidez.

Emisio-balioak betetzen ote diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da. Ikusten bada emisioko muga-balioen bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-beteztearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

#### D.2.3.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo bigarren apartatuaren D.2.3.2 azpiapartatuan ezarritako gorenko kotatik behera. Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, neurketa-portuak, irisgarritasuna eta guneen segurtasuna eta zerbitzuak.

Emisio zehaztugabeak minimizatzeko helburuarekin, ihesak antzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

#### D.2.3.5.– Usainen inguruko baldintzak.

Usain-isurien jarraipenerako eta hobekuntzarako urteko plana egin beharko da. Bestek beste:

– Iturri konfinatuak eta zehaztugabeak identifikatu beharko dira, eta horien usain-jarioak karakterizatu beharko dira.

– Usain-iturri bakoitzean, usainaren kontzentrazioa, usain-jarioaren abiadura eta usainaren emaria zehaztu beharko dira.

– Era berean, 1. eta 2. fokuetako usainak tratatzeko unitateek usainak murrizteko duten eragin-kortasuna ebaluatu beharko da.

D.2.4.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

D.2.4.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurpena sortzen duen jarduera mota nagusia: Hiri-hondakin solidoen kudeaketa.

Jarduera-taldea:

Isurketa-gunea	Hondakin-uren mota	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-gunearen UTM koordinatuak (ETRS 89)
1	Lixibiatuak	Uren tratamendua	Saneamendu-sarea. Krispiñako HUA	X: 520060 Y: 4742974
2	Ur beltzak, euri-ur zikinak, grisak, industrialak	Sanitarioak, prozesuak, biltegitratze-putzua.	Saneamendu Sistema integrala. Jundizko industrialdeko kolektorea	X: 520044 Y: 4742970

D.2.4.2.– Isurketaren muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen parametroak AMVISaren erregelamenduan ezarritakoak izango dira (ALHAOren 9. zk., 1992ko urtarrilaren 24koa). Instalaziora egiten den isurketaren parametroak (etxeakoak ez diren isuriei buruzko ordenantza) honako hauek izango dira, bakoitzeko zehazten diren gehieneko balioekin:

Parametroak	Emisioen muga-balioak
Tenperatura	50 °C
Solido esekiak	700 mg/l
Solido jalkikorak	5 ml/l
pH	6-10
DB05	600 mg/l
DQ0	1000 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Detergente anionikoak	12 mg/l
Aldehidoak	4 mg/l
Pestizidak	0,2 mg/l
Kloruroak (Cl-)	2000 mg/l
Sulfatoak (SO4=)	2000 mg/l
Sulfitoak (SO3=)	10 mg/l
Fluoruroak (F-)	10 mg/l
Zianuroak (CN-)	1 mg/l
Amoniakoa (NH3)	30 mg/l

Parametroak	Emisioen muga-balioak
Nitratoak (NO <sub>3</sub> -)	20 mg/l
Kjeldahl nitrogenoa, guztira	50 mg/l
Fosfatoak (PO <sub>4</sub> ) <sub>3</sub>	60 mg/l
Aluminioa (Al)	10 mg/l
Artsenikoa (As)	1 mg/l
Barioa (Ba)	20 mg/l
Boroa (B)	5 mg/l
Kadmioa (Cd)	0,2 mg/l
Kobaltoa (Co)	0,2 mg/l
Kobrea (Cu)	0,5 mg/l
Kromoa, guztira (Cr)	6 mg/l
Kromo hexab. (Cr <sub>6</sub> )	0,5mg/l
Burdina (Fe)	10 mg/l
Manganesoa (Mn)	2 mg/l
Merkurioa (Hg)	0,05 mg/l
Molibdenoa (Mo)	0,02 mg/l
Nikela (Ni)	2 mg/l
Beruna (Pb)	0,7 mg/l
Selenioa (Se)	0,5 mg/l
Eztainua (Sn)	10 mg/l
Zinka (Zn)	5 mg/l
Sulfuroak	10 mg/l
Olioak eta koipeak	75 mg/l
Kobrea	0,5 mg/l

Metalentzako mugak metalen guztirako gisa ulertu behar dira, eta ez metal disolbatu gisa.

Ezin izango dira diluzio-teknikak erabili isuriaren muga-balioak lortzeko.

Horrez gain, emisioen muga-balio batzuk ezartzen dira 1. isurketa-gunerako. Balio horiek betetzen ote diren ebaluatzeko, honako hauek kontuan hartuta egin ahal izango da kalkulua: ingurune hartzaileara egindako isurketa eta hondakin-uren eskualdeko araztegi hartzaileko kutsadura-murrizketa. Hauek dira emisioen muga-balioak:

Parametroak	Emisioen muga-balioak
Artsenikoa (As)	0,05 mg/l
Kadmioa (Cd)	0,05 mg/l
Kromoa, guztira (Cr)	0,15 mg/l
Kobrea (Cu)	0,5 mg/l
Beruna (Pb)	0,1 mg/l
Nikela (Ni)	0,5 mg/l
Merkurioa (Hg)	5 mg/l
Zinka (Zn)	1 mg/l

Ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Bestela, titularrak tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako arauak eta kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du onartzen baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzia batzuk isurtzea, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko araudia onartzen duena.

D.2.5.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmugarik egokia zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; beraz, jatorritik bertatik bereiziko dira hondakinak, eta haiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinak kudeatzeari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da, eta, horretarako, balioztatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Birsortzea-berrerabiltea lehenetsiko da balioztatzeko beste edozein moduren aurretik, izan materiala edo energetikoa.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio haietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken helmuga zabortege baimenduan desagerraraztea dela aurreikusten bada, hondakinak karakterizatzeko, Hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak xedatutakoari jarraituko zaio, bai eta Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako jarraibideei ere.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko, kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Azken datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa ezertan galarazi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru iragazgaitza izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan daudelako edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.



Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta hura izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertzen edo galtzen badira, edo ihes egiten badute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizko Udalean.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritik Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinarazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan hondakinak lekualdatzeari buruz ezarritako dagoena bete beharko da.

#### D.2.5.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin arriskutsu hauek aitortu ditu:

HEZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskua	Kudeatzeko bidea	Biltegitratzeko modua	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
13 02 05*	Olio erabiliak	HP5/HP6	R13/R09	1.000L-ko SGOH	Zerbitzu orokorrak	6.000
16 06 01*	Berunezko bateriak	HP8	R13	Plastikozko kaxoia		700
16 02 13*	Ekipo elektrikoak	HP6/HP14	R13	Plastikozko bidoia		200
20 01 21*	Hodi fluoreszenteak eta merkuriozko lanparak	HP6/HP14	R13	Plastikozko bidoia		puntuala
16 01 07*	Olio-iragazkiak	HP5	R13	1.000L-ko SGOH		400
18 01 03*	Hondakin sanitarioak	HP9	D15	Bidoi hermetikoa		Puntuala
16 05 07*	Iraungitako produktu kimikoak	HP6	D15	Bidoi metalikoa		50

HEZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskua	Kudeatzeko bidea	Biltegitratzeko modua	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
15 02 02*	Xurgatzaileak, iragazkiak eta trapuak (substantzia arriskutsuek kutsatutakoak)	HP5	D15	1.000L-ko SGOH		0,72
15 01 10*	Metalezko ontziak (substantzia arriskutsuek kutsatutakoak)	HP5	R13	1.000L-ko SGOH	Hondakinak multzokatzea	400
15 01 10*	Plastikozko ontziak (substantzia arriskutsuek kutsatutakoak)	HP5	R13	1.000L-ko SGOH		200
16 05 04*	Aerosolak	HP3/HP5	R13	Bidoi metalikoa		200
16 05 04*	Helio-bonbonak	HP14	R13	1.000L-ko SGOH	HHS triajea	300
16 05 04*	CO <sub>2</sub> bonbonak	HP14	R13	1.000L-ko SGOH		200
14 06 01*	Hozgarriak	HP14	R13	1.000L-ko SGOH		200
16 05 04*	Oxigeno-bonbonak	HP3	D15	Plastikozko kaxa		100
16 05 04*	Kanpin-gaseko bonbonak	HP3	R13	1.000L-ko SGOH		200
16 05 04*	Soldadurako bonbonak	HP14	R13	Plastikozko kaxa		100
20 01 23-11*	TEEHak (hozgailuak)	HP14	R13	Metalezko kaiolak		2.500
20 01 35-21*	TEEHak (telebistak/monitoreak)	HP14	R13	Metalezko kaiolak		6.500
16 03 03	Amonio sulfatoa	HP8	D15	Biltegia		Garbiketa azidoa
16 07 09	Kloruro ferrosoa	HP8	D13	Andela	Zerbitzu orokorrak	7.000

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak aintzat hartuta ezartzen dira hondakin arriskutsu bakoitzari dagozkion izendapena eta kodetzea, eta baimena izapidetzean jasotzen da haiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, oinarriko beste batzuk, euren izaera dela eta, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dute hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeke, eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian zein Euskal Autonomia Erkidegoko 2030 Ingurumeneko IV. Esparru Programan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa organo horrek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, leheneratzea edo balioztatzea kudeatzeko jardun-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo desgerrarazte-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, hondakinen tipologia dela-eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jariatuta edo lurrunduta gal ez daitezzen.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratatu, etiketatu eta biltegitratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Sanitarioen Kudeaketari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan eta hura garatzeko ondorengo araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuek ezin izango dute 6 hilabete baino gehiago egon biltegitratuta. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organoak epe hori aldatu ahaliko du, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramanez aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatze egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eramanez aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da; agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eramanez beharko da jatorritik helmugaraino. Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko dituzte tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

h) Egiaztatze beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak bete egiten dituela halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

i) Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK sortutako olio erabilia Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko da.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pila eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren onarpen-agiria izateko, eramanez aurretiko jakinarazpena egiteko eta kontrol- eta jarraipen-agiria betetzeko betebeharratik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratutako kudeaketa-azpiegiturretara eramanez diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei emanez zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiria hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

k) Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak badituzte, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar dituzte poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dauzkaten gailuak desagerrarazteko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009/EE Erregelamenduan –ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa– adierazten diren substantziak badituzte, berreskuratu

egingo dira, alderdiek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko dira aparatua berrikusteko edo mantentzeko lanetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK urtero adierazi beharko diote Ingurumen Sailburuordetzari sortutako hondakin arriskutsuen jatorria zein den, zein kopuru sortu den, zein erabilera emango zaion eta adierazpenaren xede den ekitaldiaren amaieran aldi baterako biltegitratuta daudenen zerrenda. Datu horiek dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira.

n) Bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK urtero adierazi beharko diote Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituzten hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria. Datu horiek dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira.

o) Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluari jarraikiz, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarriko printzipioetako bat betetzeko, hau da, mota horretako ahalik eta hondakin gutxien sortzeko, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko diote Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, gutxienez lau urterik behin, Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatutako legea garatzen duen araudiak ez baditu hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen Fomento de Construcciones y Contratas SA eta Cespa Conten SA.

q) Baldin eta Fomento de Construcciones y Contratas SA eta Cespa Conten SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile baten bitartez eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabeak badira, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduradunak izango dira, eta, beraz, ontzi hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati eman beharko diote.

r) Apartatu honetako g) eta h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m), n) eta o) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektroniko bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

s) Amianto duten hondakinak atzemanaz gero, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK bete egin beharko dituzte Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzei buruzko 108/1991 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako eskakizunak. Horrez gain, amianto duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera egingo dira; dekretu horren bidez ezarritzen dira amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

## D.2.5.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskugabeak honako hauek dira:

Hondakinaren izena	Barne-deskribapena	HEZ kodea	Dagokion prozesua	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urte)
Hiri-hondakinen eta parekatuen frakzio konpostatu gabea	Finketarako errefusa	19 05 01	Finketa	3.500
Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak	Material bioegonkortua	19 05 99	Konpostajea-Finketa	27.000
Hiri-hondakinen eta parekatuen frakzio konpostatu gabea	Biohondakin egonkortuaren errefusa	19 05 01	Konpostajea-Heltzea	10.300
17 05 03 kodean zehaztuta ez dauden lur eta harriak Hondeatutako material naturalak	Lurrak	17 05 04	Scrubber obra puntuala	304
Plastikoa eta kautxua	Zinta garraiatzaileak	19 12 04	Zerbitzu orokorrak	5
Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak	Materia organikoen lixibiatuak	19 05 99	Hondakin-uren tratamendua	3.000
Plastikozko ontziak	Plastikoa-PET	15 01 02	HHS triajea	350
Plastikozko ontziak	Plastikoa-PEAD	15 01 02		250
Plastikozko ontziak	Plastikoa-TetraBrika	15 01 02		127
Beirazko ontziak	Beira	15 01 07		375
Erabiltzen ez diren pneumatikoak	Pneumatikoak	16 01 03		15
Hiri-hondakinen eta parekatuen frakzio konpostatu gabea	Tamaina handiko errefusa	19 05 01		28.000
Burdinaren eta altzairuaren hondakinak	Ferrikoak	19 10 01		600
Papera eta kartoia	Papera-Kartoia	19 12 01		1.500
Burdin metalak	Burdina	19 12 02		400
Burdinarik gabeko metalak	Aluminioa	19 12 03		42
21 01 21, 20 01 23 eta 20 01 35 kodeetan zehaztutakoez bestelako ekipamendu elektriko eta elektroniko baztertuak	TEEH (EAT)	20 01 36-42	8	
Zura, 20 01 37 kodean aipatzen ez dena	Zura	20 01 38	125	
Hiri-hondakinen eta parekatuen frakzio konpostatu gabea	Sorta onen errefusa	19 05 01	HHS triajea-Prentsa	8.500
Hiri-hondakinen eta parekatuen frakzio konpostatu gabea	Sorta txarren errefusa	19 05 01		4.100

a) Bigarren apartatuko D.2.5 azpiapartatuak hondakinen kudeaketarako printzipio hierarkikoei buruz dioena betez, 190599 (material bioegonkortua) eta 190501 (hiri-hondakinen eta parekatuen frakzio konpostatu gabea) motako hondakinak kudeatzeko orduan, balorizatu egingo dira eta ez dira hondakindegian utziko; eta, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honetan, desagerraraztea ez den bestelako kudeaketa-proposamen bat egiaztatu beharko da, edo, arrazoi teknikoak, operatiboak, ekonomikoak eta abar direla medio, hondakina balorizatzeko ezintasuna justifikatu beharko da.

b) Hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei dagokienez bigarren apartatuko D.2.5 azpiapartatuan xedatutakoaren arabera, hondakinak balorizatu egin beharko dira, eta balorizatzaile baimendun bati eraman beharko zaizkio horretarako. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Justifikazio tekniko hori lortzeko, hondakin hori onartzeko baimenduta dauden hiru kudeatzailek ezetza eman behar diote kasuan-kasuko hondakina balorizatzeari.

c) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati emango zaizkio.

d) Baldin eta hondakin horiek deuseztatzeko badira, ezingo dira urtebete baino gehiagoz biltegitratuta eduki. Hondakinen azken helburua balorizatzea bada, ordea, 2 urtez gorde ahal izango dira.

e) Oro har, ebakutu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko dituzte tratamendu-kontratuak edo agiri ofizial baliokideak, horiek nahitaezkoak direnean.

f) Hondakina zabortegian biltegitratuz gero, jarraipen- eta kontrol-agiria bete beharko da hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, hondakinak hondakindegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

g) Balorizatzeke edo desagerrarazteke helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araberan.

h) Baldin eta Fomento de Construcciones y Contratas SA eta Cespa Conten SA Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile baten bitartez eskuratutako merkataritzarako edo industriarako ontzi baten azken jabeak badira, ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduradunak izango dira, eta, beraz, ontzi hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati eman beharko diote.

i) Bat etorri Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK urtero adierazi beharko diote Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituzten hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria. Datu horiek dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira.

j) Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluari jarraikiz, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

k) Apartatu honetako d), e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) g), i) eta j) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoko bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

#### D.2.6.– Lurzorua babesteari lotutako baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako aginduak betetzeko aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostenaren gomendioekin bat etorri, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK lurzoru babesteko behar diren neurriak hartu beharko dituzte.

Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuarekin, lurzuaren egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudian (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua), lurzoria babesteko betebeharrak ezartzen dira, eta, hain zuzen ere, horiek betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzuaren kalitatea leheneratzen diharduen erakunde egiaztatu batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzoruen egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat helaraziko da.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Aurreikusten bada aldaketaren bat egin behar dela instalazioa baimenduta dagoen lursailaren barruan, eta aldaketa horren ondorioz lurra mugitu behar badira:

a) Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluko 1.c) apartatuan jasotzen denarekin, induskatu beharreko materialak (lurra, eraiste-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearren.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa burutu bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzuaren kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko egiaztatuta dagoen erakunde batek egina. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organok onartu beharko du, gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketa sustatu duen pertsona fisiko edo juridikoaren eta jarduketa egingo duen kontratistaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruen Kalitatearen Administrazio Erregistroyaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

- Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.
- Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan, erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko da, eta, bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira. Horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m<sup>3</sup>-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotako irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, oinarritzko irizpide batzuk bete beharko dira; hain zuzen ere, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan ("Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa") adierazitako oinarritzko irizpideak, induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu beharrekoak.

g) Soberako materialak instalazioan bertan berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritako EBA-B (industria-erabilera) balioaren azpikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo- edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzen dituzten sistema, eta zehazten baita erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa.

h) Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako EBA-A ebaluazioko balio-adierazleak eta TPHko 50 mg/kg-ko balioa baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurra lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Aurreikusten bada aldaketaren bat egin behar dela instalazioa baimenduta dagoen lursailetik kanpora (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berrian lehenago gauzatu bada ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek dagozkion neurriak har ditzan, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuaren arabera.



## D.2.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezko neurri guztiak ezarriko dira honako indize akustiko hauek gaindi ez daitezen:

a.1.– Maila hauei egokitu beharko zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den  $L_{Aeq,60 \text{ segundo}}$  zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta atek itxita, ezta  $L_{Amax}$  indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu beharko zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den  $L_{Aeq, 60 \text{ segundo}}$  zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leihoak eta atek itxita, ezta  $L_{Amax}$  indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, apantailamenduak saihesteko behar den altuera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
$L_d$	75
$L_e$	75
$L_n$	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran bete beharreko zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan ( $L_{Aeq,d}$ ,  $L_{Aeq,e}$  eta  $L_{Aeq,n}$ ) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-tik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da ( $L_{Aeq,T_i}$ ).  $T_i$  jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 5 dB-tan gaindituko 1. taulan finkatutako balioak.

b) Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez zaratarentzat ezarritako kalitate akustikoaren helburuak gainditzin direnean, hain zuzen ere, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean garatzen den zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta igorpen akustikoei buruzko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. eta 16. artikuluetan adierazten direnak, jarduerak beharrezko neurriak hartu beharko ditu helburu horiek gainditu ez daitezen.

c) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneeetako zarata-maila.

E) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

E.1.– Atmosferara eginiko emisioak kontrolatzea.

a) Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK emisioak kontrolatu beharko dituzte, informazio honen arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Kutsatzailea	Metodoak	Maiztasuna
1	0100027767-01	1. Bioiragazkia–aurretratamendua	Partikulak, guztira	UNE-EN 13284-1	Sei hilean behin
			H <sub>2</sub> S	EPAko 11. metodoa	Sei hilean behin
			NH <sub>3</sub>	UNE-EN ISO 021877	Sei hilean behin
			GKOH	UNE-EN 12619	Sei hilean behin
			Usainak	UNE-EN 13725	Sei hilean behin
2	0100027767-02	2. Bioiragazkia–heltzea eta fintzea	Partikulak, guztira	UNE-EN 13284-1	Sei hilean behin
			H <sub>2</sub> S	EPAko 11. metodoa	Sei hilean behin
			NH <sub>3</sub>	UNE-EN ISO 021877	Hiru hilean behin
			GKOH	UNE-EN 12619	Sei hilean behin
			Usainak	UNE-EN 13725	Sei hilean behin
3	0100027767-03	Kogenerazio-modulua	Partikulak, guztira	UNE-EN 13284-1	Urtean behin
			NO <sub>x</sub>	IT-02: Isurketen kontrola	Urtean behin
			SO <sub>2</sub>	IT-02: Isurketen kontrola	Urtean behin
			CO	IT-02: Isurketen kontrola	Urtean behin
			Formaldehidoa	IT-02: Isurketen kontrola	Urtean behin
			KOG	UNE-EN 13284-1	Urtean behin
5	0100027767-05	Galdara	NO <sub>x</sub>	IT-02: Isurketen kontrola	Bost urtean behin
			CO	IT-02: Isurketen kontrola	Bost urtean behin

b) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, bereziki honako gai hauei dagokienez: helburua eta neurketa-plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta banakako neurketa bakoitzaren iraupena, eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako isurketa-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batezbesteko maiztasunarekin funtzionatzen bada, isurketa bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori urteko ingurumena zaintzeko programan, dagokion urtekoan, justifikatu beharko da.

d) Biogasa desagerrarazteko zuzian, 1.000-1.200 °C arteko tenperatura hartuko da, gutxienez 0,3 segundoan (iraupen-denbora), eta turbulentzia egokiari eutsiz.

#### E.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraituz, betiere: Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa eta atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskinean ezarritakoa.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

E.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztutako agirien arabera, azterketa hauek egingo dira:

Isurketa-gunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxatilaren UTM koordinatuak	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
PV1	Ur Beltzak	X: 520060 Y: 4742974	pH, eroankortasuna, solido esekiak, olioak eta koipeak	Hilean behin	Saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoa
			Artsenikoa, kadmioa, kobrea, kromoa guztira, kromo VI, merkurioa, nikela, beruna, zinka, PAH	Hiru hilean behin	Saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoa
PV2	Euri-ur zikinak/ grisak/ industrialak	X:520044 Y:4742970	pH, eroankortasuna, solido esekiak, olioak eta koipeak	Hilean behin	Saneamendu-sarearen kudeatzaileak ezarritakoa

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, "Erakunde Laguntzaile" batekin egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo, bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Isurketen kontrolen emaitzak hauei bidaliko zaizkie:

– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, ebazpen honetako bigarren apartatuko E.6 azpiapartatuan ezarritako epeak eta baldintzak betez.

E.3.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urtean behin:  $L_d$ ,  $L_e$ ,  $L_n$ ,  $L_{Aeq}$ ,  $T_i$  eta  $L_{Aeq,60}$  segundo. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste maiztasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batekin egin beharko ditu, bat etorri urriaren 16ko 2012/2012 Dekretuan ezarritakoarekin. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabeko egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

E.4.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Hargatik eragotzi gabe ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.6 azpiapartatuan eskatutako dokumentazioa, datu hauek aurkeztuko dira lurzoruarekiko afekzio berri baten aukera hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldiaren diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla-eta lurzorua- ren eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera ez ezik –zolakak iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatilak–, larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela ere egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Ekipamendu eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen duen edo, hala badagokio, horietan hautemandako gabeziak azaltzen dituen berriarazko adierazpena izan beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioen adierazpena, halakorik balego, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalte-rik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatu- takoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide tekniko onartzen du–, eta lurzorua- ren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotuta, Fomento de Construc- ciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK lurzorua- ren eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko dute. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko dituzte urak ezaugarritzeko, ateratako lurzoru-zutabea ezaugarritzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon daitezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren jarioa; hala, instalaziotik gorako eta beheko uren jarioa alderatu ahal izango da.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

#### E.5.– Jardueraren adierazleen kontrola.

Sustatzaileak ondorengo taulan agertzen diren jardueraren inguruko parametro-adierazle nagusi- en jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen-gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Tratatutako hondakinak	Lohiak (02 03 01)	t	-	-	urtean behin
	HHS (20 03 01)				
	Inausketa eta lorezaintza (20 02 01)				
	Sukaldeetako eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak (20 01 05)				
Ekoizpena	Konposta	t	Produktua / hondakinak guztira	t/t	urtean behin
	Material bioegonkortua				

Ingurumen-gaia	Abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Azpiproduktua	PET	t	azpiproduktua / hondakinak guztira	t/t	urtean behin
	PEAD				
	TetraBrik				
	Beira				
	Ferrikoak				
	Papera-kartoia				
	Aluminioa				
	Zura				
	Pneumatikoak				
Lehengaien eta osagarrien kontsumoa	Olioia	l	Materiaren kontsumoa / hondakinak guztira	l/t	urtean behin
	Kloruro ferrosoa	t		t/t	
	Alanbrea			‰ (t/t)	
	Alanbrea				
Energiaren kontsumoa	Elektrizitatearen kontsumoa	kWh	Elektrizitatearen kontsumoa / hondakinak guztira	KWh/t	urtean behin
	Erregaien kontsumoa	litroak	Erregaien kontsumoa / hondakinak guztira	l/t	
Uraren kontsumoa	Uraren kontsumoa	m3	Uraren kontsumoa / hondakinak guztira	m3/t	urtean behin
Uretara eginiko isurketak	Isurketa	m3	Isurketa / hondakinak guztira	m3/t	urtean behin
Emisio atmosferikoak	Partikulak, guztira	mg/Nm3	Urteko isurketak, guztira	t/urte	urtean behin
	NH3	mg/Nm3			
	H2S	mg/Nm3			
	GKOH	mg/Nm3			
	NOx	mg/Nm3			
	SO2	mg/Nm3			
	CO	mg/Nm3			
	Formaldehidoa	mg/Nm3			
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Hondakin arriskutsu balorizatuak / sortutako hondakin arriskutsuak Hondakin arriskugabe balorizatuak / sortutako hondakin arriskugabeak	t/t	urtean behin
	Sortutako hondakin arriskugabeak				
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabeheren kopurua	Kop./urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabeheren kopurua	Kop./urte	urtean behin
Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS)	Ekoscan/ urtea eta/edo ISO14001/ urtea eta/edo EMAS/ urtea		Bai/Ez Zein/urtea		urtean behin

#### E.6.– Emaitzak kontrolatzea eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu beharko dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Hala, aipatutako programan zehaztutako aldian egindako kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko dira bakarrik, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako, helbide elektronikoa hau erabili beharko da: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus).

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak soilik bidaliko dira kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausa eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldeztatik hala egin ez bada.

#### E.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazle bereizgarrien zehaztapena eta adierazle horiek aztertzeko sistematika jaso beharko ditu, enpresak berak ingurumen-hobe-kuntza ziurtatzeko ezarritako neurri eta mekanismoen (ingurumen-adierazleak) eraginkortasuna egiaztatzeko.

#### F) Ezohiko egoeretako prebentzio-neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko lanak eta mantentze-lanetarako programatutako lanak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren isurketen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-lanetan eta ezohiko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren apartatuko D.2.5 azpiapartatuan ("Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak") ezarritakoarekin bat etorriz, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

#### F.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK jarduera uzte horren berri eman beharko diote ingurumen-organoari, bi hilabeteko

epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduketa-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko dituzte, ebazpen honen bigarren apartatuko D.2.5 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritz.

#### F.3.– Jarduera aldi baterako uztea.

Jarduera aldi baterako etetea eskatuz gero, Industriako Emisioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK, aldi baterako etete-eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko dute instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkien ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituzten adierazteko.

Era berean, instalazioa berriz abiarazi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumeneari eragina izan dezakeen isuri edo emisio oro saihesteko.

#### F.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean, ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendurako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, apartatu hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

##### a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuzko isurketak edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen ikuskapen bisualak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako emisioak eta isuriak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipamenduen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan sortutako soberako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioak behar bezala funtziona dezan. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura botako aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo zabortegei baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoan hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegitratuko dira. Ez dira inoiz pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoak kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

Instalazioek lohien tratamendua badute, lohi horietatik hustutako ura berriro bideratu beharko da arazketa-instalazioaren sarrerara, tratatu dadin.

Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilotutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohandua garbituko du, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

Pabiloien barruan zolatak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira, edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Ez dago baimenduta hondakin-ura "by-pass" bidez isurtzea arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez "by-pass" bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. "by-pass" horretan aurreikusi gabeko isuri bat badago, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidalita, apartatu honetako j) puntuan adierazitakoari jarraituz.

b) Halaber, erregistro bat eduki beharko da, aldizka egindako mantentze-lanak eta hautemandako gorabeherak jasota uzteko.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu, arazketa-instalazioak modu egokian ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak mantentzeko.

d) Besteak beste, erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, eta, orokorrean, fabriketan sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten partzelen azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hauts-itxurako produktuak biltegitratzeko, zulo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak biltegitratu egingo dira, horiek ingurunean sakabanatzeko aukerarik emango ez duten baldintzetan.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratze-instalazioek eskakizun batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guttien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratze erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gertatzen diren isurketei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipo egokiak.

i) Ontzien hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat eduki beharko da. Horren bitartez, instalazioaren eraginkortasunari eragin diezaioketen isuriak instalaziora joatea saihestu beharko da.



j) Gorabeheraren bat izanez gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen gainean edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo anomaliaren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera-mota.
- Jatorriak eta arrazoiak (unean bertan zehaztu daitezkeenak).
- Zuzentzeko edo eusteko neurriak, berehala aplikatu direnak.
- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jardunak, halakorik balego.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Vitoria-Gasteizko Udala berehala jarri behar dira jakinaren gainean. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera-mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Ustekabeko isurketa gertatuz gero, emaria eta isuritako materialak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne hartuta.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isuria gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isuri hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS DEIAK (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gertatzen diren gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko etenaldi programatu oro, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

G) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomen datzen badute, aldatu ahal izango dira babes- edo zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa, baita neurtu behar diren parametroak, neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugak ere. Era berean, babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa alda daitezke, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) E-PRTR komunikazioa.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Fomento de Construcciones y Contratas SAK eta Cespa Conten SAK aurreko urtean atmosferara eta uretara egindako emisioei, eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko diote Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzien Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta ingurumena zaintzeko programarekin bat etorritik.

Informazio hori bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorritik uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

I) Instalazioan aldaketak egitea.

Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da aldezturik:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_autorizacion/p\\_autho\\_20183895085814/procedures/proc\\_20183895329689/eu\\_def/adjuntos/Formulario\\_modificaciones.doc](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc)

Organo honen onespina ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Industriako Isurketen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik, betiere.

Halaber, proiektua aldatzen den kasuetan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta lurzoru horrek lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da aldaketa gauzatu aurretik, Lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

J) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrek ezartzea ekar dezake».

«Laugarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspina ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, finkatutako emisioaren muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Emisioak nabarmen murriz daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan eginiko aldaketa handien ondoriozko gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta, beste teknika batzuk erabili beharra badago.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legerian araututakoaren arabera, uste baldin badu ingurumen-baimen integratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isurketei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogeit eguneko epean hasteko berrikuste-prozesua.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legeriak hala eskatzen badu, edo, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza garrantzitsu berrietara egokitu beharra badago; bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela hautematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo beste ohar batzuen arabera, egiaztatzen bada ez direla nahikoak ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan ezarritakoaren arabera azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikustea ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan.»

Hirugarrena.– Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri emandako ingurumen-baimen integratua berrikustea. Hiru hilabeteko epean, proposamenen ebaluazio tekniko bat aurkeztu beharko da, instalazioan hobekuntzak egiteko eta, horrela, balorizatu daitezkeen frakzioak efizientzia handiagoarekin bereizteko eta sortutako frakzioak lehentasunezko kudeaketa-lanetara bideratzeko, baita horiek kudeatzeko ere, helmugei lehentasuna emanez, hondakinen araudi sektorialean ezarritako kudeaketa-lanen hierarkia oinarritzat hartuta.

Laugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fomento de Construcciones y Contratas SAri eta Cespa Conten SAri, Vitoria-Gasteizko Udalari, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 17a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,  
AMAIA BARREDO MARTÍN.